



# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure ideia txakurrentzako ur-parkea egitea da, beraz, gure bezero segmentua, txakurra maskotatzat dituzten pertsonak dira.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzaren erregistroko datuak kontuan hartuta, txakurrei jartzen zaien derrigorrezko txipatik ondoriozta daiteke, batez beste, lau etxebizitzatik batean txakurra agertzen dela familian. Horrez gain, 2020an Bizkaian 35.095 pertsonak zuten txakurra, hortik 2021era ia 3.500 gehiago gehitu ziren, 38.570 pertsona izatera arte. Gainera, urtetik urtera gero eta jende gehiagok txakur bat maskota gisa hartzen du.



Gure enpresa aurrera joateko garrantzitsuena txakurra da, txakur-arraza, adina eta aktiboa den ala ez berdin dio, ur-parke hau txakur mota guztientzat irekita dago eta.



Geografikoki gure enpresa Bizkaian kokatuta egongo da eta batez ere Bizkaian bizi direnei zuzenduta dago. Probintzian ez dago gure zerbitzua eskaintzen duen horrelako beste lekurik, beraz esperientzia hau bizi nahi duen edonor guregana etorriko da. Aparkalekua izango dugunez, aparkatzeko orduan ez dute arazorik izango. Gainera, garraio publikoarekin ondo konektatuta egongo da ere.

Adinari dagokionez, ez dugu segmentu konkreturik identifikatu. Ur-parkera adin guztietako pertsonak etorri ahal dira. Egia da, ez dugula gomendatzen mugikortasun arazoak dituzten pertsonak artikulazioetan etortzea, espazioaren egokitasuna ezin dugulako ziurtatu parke osoan zehar eta edozein motatako gertakari txarrak prebenitzeko.

